

## ELKARTEAK

Elkarte ezberdinen artean aliantzak egongo dira bi hauen helburua bien benefizioa lortzea izango da. K asu honetan, empresa hau eta beste empresaren artean ez da egongo inolako lehiaketarik. Ahalegindu beharra dago, lehiakide ez diren horiekin aliatzen, eta horretarako hainbat enpresa etorri dira burura esaterako, zubikoa kiroldedia. Oñatin oso indar handia duelako eta mundu guztia joaten delako bertara, beraz, oso aliantza aproposa da.



ZUBIKOA KIROLDEGIKO BAZKIDE



ZINTZILBUTIL

Asmoa kiroldegian bazkide egiten den jendeari, produktua oparitzea da. Horrela hasiera batean produktua ezagutzera eramango da, eta etorkizuneko bezero posibleak produktua erabiltzera oituko dira, salmenta posibleak handitzen. Produktuak arrakasta handia duen momentuan kiroldedia produktuaren sortzaileei ordaintzen hasiko da, azken finean, horrek ere motiba zaitzakeelako bazkide egitera.



Estrategia honekin extra bat ematen dio zubikoa kiroldegian bazkide egiteari eta gainera produktua ezagutarazten dute, biok lortzen dute onura. Zintzilbutil kiroldarekin dago lotuta, batez ere, kirola praktikatzan dutenean erabiliko baitutelako gehien, eta kirola kiroldegian egiten da. Gimnasioan azkenaldian jende gero eta gehiago egoten

da eta askotan ez da leku asko egoten zure botila lurrean uzteko, zoru guztia beteta egoten delako, eta ondorioz, jendea botilak botatzeko beldurrarekin ibiltzen da, banaka-banaka botila guztiak sahiestuz. Horregatik zintzilbutil beharrezkoa da horrelakoetan. Gainera, produktua edozein lekutan zintzil daiteke, bai barra bertikaletan eta bai horizontaletan.



Honetaz aparte, kiroldegitik kanpoko ekintzetan ere posible da erabiltzea, adibidez, futbolean. Kasu honetan ez litzateke leku faltaren arazoagatik izango, higieneagatik baizik. Askotan kautxo sartzan baita botiletara, baina botila airean bada lurarrekin inolako kontakturik gabe, ez da horrelako arazorik egongo.